



Azpeitiko Udala

Azpiko Udalbatzak 2025eko otsailaren 2an egindako bilkuran, honako hau adostu zuela jakinarazi nahi dizut:

AZPEITIKO UDALEKO UDALTZAINGOAREN ZERBITZUKO AGENTE PLAZA BAT BETETZEKO HAUTAKETA PROZEDURA ZUMAIAKO UDALAREN GAIN UZTEA KUDEAKETA GOMENDIO BIDEZ.

Azpeitiko Udaleko Udaltzaingoaren Zerbitzuko Agente plaza bat betetzeko hautaketa prozedura Zumaiaiko Udalaren gain uzteko proposatu den kudeaketa gomendioren inguruan.

Segidan, Ogasuna, Barne Antolaketa eta Langileria Batzorde Berriemaileak egindako proposamenaren berri eman da:

Azpeitiko Udalaren Lanpostu Zerrendan, 36 kodea duen plaza hutsik dago, gaur egun. Lanpostu hori 2025. urterako Eskaintza Publikoan aterako da, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua araberako (administrazio batek bere barneko baliabideekin bete ezin dituen eta aurrekontu-esleipena duten lanpostuak langile berriekin bete beharko dira, besteak beste lanpostu eskaintzaren bidez).

Ikusirik Azpeitiko Udalak hiru urteko epea duela plaza horri loturiko hautaketa-prozedura aurrera eramateko eta Azpeitiko Udalak dituen baliabideak mugatuak direla, Zumaiaiko Udalak, Getariako Udalarekin batera, Udaltzaingoko Agenteen hautaketa-prozedura bateratu bat martxan jartzeko asmoa dute. Hautaketa-prozedura hori aurrera eramateko ardura Zumaiaiko Udalak hartuko du. Azpeitiko Udaleko prozedura ere hautaketa-prozedura bateratu horren baitan sartzea proposatzen da. Hori guztia, 40/2015 Legeak bere 11. artikuluan araututako kudeaketa-gomendioen bitartez kudeatzea bideratuko da. Bi udalek sinatuko duten kudeaketa-gomendia proposamen honen **eranskinean** jasotzen da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.h) artikuluan aurreikusten denez, hautaketa-prozedura Zumaiaiko Udalak aurrera eramateko kudeaketa-gomendio hori onartzea Udalbatzaren eskumena da; beraz, Udalbatzari honako akordioa hartzea proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Dokumentu honen eranskinean jasota dagoen kudeaketa-gomendia onartzea Zumaiaiko Udalaren alde.

Bigarrena.- Onarpen horren adierazle gisa, Azpeitiko Udaleko Alkatea ahalduztzea Zumaiaiko Udalaren alde egindako kudeaketa-gomendia sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabakia Zumaiaiko Udalari jakinarazteko.

Espedientean jaso da gaiaren inguruan Udalaren idazkariak emandako txostena.

Azaldutakoa ikusita, aldeko txostena eman zaio dagokigun kudeaketa-gomendia onartzeko proposamenari, Udaleko Lanpostuen Zerrendako 36. lanpostua



Azpeitiko Udala

hautatu eta betetzeko izapideak egiteko.

Udalbatzaren kideak egindako proposamena baloratu eta talde bakoitzak bere iritzia eman du. Horren ondoren, kontuan izanik ez dagoela Udalbatzako kideen aho batezko adostasuna dagokion bozketa egin da, eta horren ondorioz, Udalbatzak, bere kideak gehiengoz hartutako erabakiarekin, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin **ONARTU DU**:

Lehenengoa.- Azpeitiko Udaleko Udaltzaingoaren Zerbitzuko Agente plaza bat betetzeko hautaketa prozedura Zumaiaiko Udalaren gain uzteko proposatu den kudeaketa gomendio onartzea.

Kudeaketa gomendioa Lankidetza Hitzarmen bidez gauzatuko da. Eranskin moduan jaso da kudeaketa gomendiaren edukia.

Hitzarmenak jasotako konpromisoak egikaritzeko, hitzarmen honen baitan, beharrezkoak diren baliabide material aurreikusiko ditu.

Bigarrena.- Alkatea izendatzea Udalaren izenean lankidetza-hitzarmena sinatu eta bertan jasotako helburuak bideratzeko behar diren ekintzak emateko.

Hirugarrena.- Erabakia Zumaiaiko Udalari jakinaraztea, bai eta Getariako Udalari ere prozedura honetan interesdun gisa.

Eta horren berri ematen dizut zuri, jakinaren gainean izan zaitezen.

Azpeitia, 2025eko otsailaren 7a

IDAZKARIAK,

